


IKASTEKO TEKNIKAK

G.I.A. E.L.G.E. METODOAREN URRATSAK



ERREPASATU!

GOGORATU

LABURPENA EGIN

ESKEMA EGIN

AZPIMARRATU

IRAKURRI

GAINBEGIRATU

GIA ELGE



1. GAINBEGIRATU

Hasieran, ikasten hasi aurretik, gainbegiratu ikasi behar duzun materiala: apunteak, liburua ... Horrela ikuspegi orokorra izango duzu.

Aztertu beharrekoak:

- ☞ Portada eta kontra-portada (izenburua, autorea, itzultzailea, argitaletxea, urtea, laburpena, balorazio orokorra ...)
- ☞ Hitzaurrea (bertan agertzen dira idazteko zergatiak, zailtasunak...)
- ☞ Aurkibidea (liburuaren atal eta azpiatalak)
- ☞ Kapituluaren barruan:
 - Titulua
 - Azpiatalak
 - Grafikoak
 - Eskemak
 - Tipografia (letra mota)



2. IRAKURRI

Bi une desberdin bereiz ditzakegu:

AURREIRAKURKETA

Irakurketa arina da, ideia orokorra izateko. Ez azpimarratu, ezta apunteak hartu ere. Egizu hau 2 edo 3 aldiz.



ULERTZEKO IRAKURKETA

Irakurketa sakona da. Orain azpimarratu behar dituzu ideia nagusiak eta bigarren mailakoetatik bereizi eta hiztegian begiratu ulertu ez dituzun hitzak.

Batzuetan, hau egitean arazoak agertzen dira: "irakurri bai baina ulertu ez".

Arazoaren zergatiak hauek dira:

- ☞ Hitz kopuru eskasa. Hiztegi pobrea. Hobetzeko gehiago irakurtzea proposatzen da.
- ☞ Kontzentrazio falta.
- ☞ Irakurketa pasiboa. Azpimarratu baina eskemarik egin gabe. Hiztegian ez da begiratzen.

Testuaren ideiak ateratzeko kontuan izan:

- ☞ Testua paragrafotan dago banaturik.
- ☞ Paragrafo bakoitzean, normalean, ideia bat agertzen da.
- ☞ Ideia nagusia orokorra da. Beste guztiei zentzua ematen die. Bera gabe esaldia amaitu gabe geratzen da.
- ☞ Bigarren mailako ideiek azaltzen eta garatzen dute ideia nagusia. Detaile eta zehaztasun gehiago ematen dituzte eta ideia nagusia osatzen dute. Bere kabuz ez daukate esanahi garrantzitsurik, baina ideia nagusiari esker esanahi osoa hartzen dute.

3. AZPIMARRATU

Izenak esaten duen bezala azpitik marra bat jartzea da, ideia nagusiak nabarmentzearen. Lagungarria izango da, geroago Ikasitakoa gogora ekartzeko eta birpasatzeko.

NOIZ azpimarratu?

Ez azpimarratu inoiz, lehenengo irakurketan, ulertzeko irakurketa egiten duzun bitartean; azpimarratu bigarren edo hirugarren aldiz irakurtzean.

ZER azpimarratu?


Ez duzu dena azpimarratu behar, hori egitea, eta ezer ez egitea, gauza bera da. Ez azpimarratu esaldi osoak. Azpimarra itzazu hitz gakoak, hauek segidan irakurtzean, esanahi osoa agertuko delarik.

NOLA azpimarratu?

Oso teknika pertsonala da, gustuen arabera egiten da. Erabil ditzakezu kolore desberdinak: kolore batekin ideia nagusia eta bigarren mailakoak bereizteko beste koloreekin edota laukiak, geziak, kortxeteak, asteriskoak eta abar.

ZERGATIK azpimarratu?

- ☞ Jarrera aktiboa izango duzulako.
- ☞ Arreta areagotzen duelako.
- ☞ Distrakzioak saihestea dituelako.
- ☞ Ulermena errazten duelako.
- ☞ Berrikastean laguntzen duelako.
- ☞ Laburpena eta eskemaren elaborazioa errazten duelako.
- ☞ Gogoratzea errazten duelako.




4. ESHEMAK EGIN

Eskemak adierazten du azpimarratutakoa, baina grafikoki. Ideien arteko erlazioak eta loturak agertzen dira. Ideia nagusiei garrantzi handiagoa ematen zaie eta bigarren mailako ideien menpekotasuna markatzen da.

- ☞ Teknika aktiboa da.
- ☞ Ikusmenezko oroimenari laguntzen dio adierazpen grafikoa delako.
- ☞ Begi bistan dago gai osoa.
- ☞ Denbora aurrezten du ikasteko aldian.
- ☞ Birpasatzean oso erraz gogoratzen da ikasitakoa.


NOLA EGIN?

- ☞ Orri batean eskema osoa.
- ☞ Izenburua idatzi.
- ☞ Idatzi esaldi oso laburrak eta esanguratsuak, hitz gakoak barruan daudelarik.
- ☞ Ideia nagusi guztiek egon behar dute.
- ☞ Bigarren mailako ideiak, ideien nagusien osagarriak dira.
- ☞ Ideien garrantzia **ikusi** egin behar da. Hau "sangrado" ari esker erraz nabari daiteke: orriaren ezkerrean dauden ideiak inportanteenak dira. Eskuinago daudenak ez dira hain inportanteak.



ESKEMA MOTAK:

☞ Giltzak eta geziz egindakoak



☞ Zenbakiz egindakoak

1.
2.
 - 2.1.
 - 2.2.
 - 2.2.1.
 - 2.2.2.
3.
 - 3.1.
 - 3.2.

ABANTAILAK ETA DESABANTAILAK

Giltzaz egindakoa askoz grafikoagoa da eta ikusmenezko oroimenerako onena.

Zenbakizkoa oso zehatza da, baina aspergarriagoa eta arreta gal dezakezu. Egokia da lan zientifiko eta zehatzak egin behar direnean.

5. LABURPENA EGIN

Testu baten laburpena egitea testua laburtzea da, ideia nagusi guztiak jaso eta argudioaren egitura mantentzen delarik.

Idea guztiak oso argi azaldu behar dira, baina ez telegrafikoki eskeman bezala; laburpenean, ideiak adierazteko hitz gehiago behar dira.

Esaldiak aurreko eta ondorengo ideiekin erlazionatu behar dira, testuari kohesioa emateko.



NOLA EGIN LABURPENA?

Azpimarratu eta eskema egin ondoren, batzuetan, laburpena egitea komeni da.

Laburpenaren bidez eskemaren estruktura osatuko duzu zehaztasunez.

Luzerari dagokionez, testuaren 1/3 eta 1/5en artean egon behar du. Laburpenak laburra, pertsonala eta koherentea izan behar du.

ABANTAILAK

- ☞ Idatzi bat denez, azterketarako primerako prestakuntza ematen du.
- ☞ Idazmena hobetzeko aukera ona ematen du.
- ☞ Teknika aktiboa da; beraz, arreta eta kontzentrazioa mantendu behar dira.
- ☞ Logikoki antolatzeke gaitasuna garatzen du.

6. GOGORATU



Gogora ekartzea ikasitakoa errepikatzea da, asimilazio maila egiaztatzeko eta oroimena indartzeko.

Errezitatze hori boz goraz edo isilean egin daiteke, inoiz liburuan begira daiteke daturen bat falta den konprobatzeko.

Ikasten denbora eman baduzu eta ez baduzu materia ondo gogoratzen, errepaso gehiago behar dituzu, gaiak memorian ongi grabaturik geratu arte.

Beti izango da errazagoa eskema osoa gogoratzea, hariari jarraituz ideia batek hurrengoa ekarriko duelako.

Oso garrantzitsua da gogoratu behar dena ondo ulertzea.

ABANTAILAK:

- Asimilazio maila ezagutzeko balio du.
- Teknika aktiboa da, kontzentrazioa eskatzen duena.
- Oroimenari laguntzen dio.



NOIZ GOGORATU?

- Zatitu materia, adibidez unitateetan.
- Unitatearen atal baten azpimarratu eta eskema egin ondoren, errezita ezazu konprobatzeko zer gogoratzen duzun.
- Hartu atal berri txiki bat eta jarraitu prozesu berari.
- Horrela egin atal berri bakoitza ikasi ondoren.
- Atal guztiak ikasitakoan, egizu gauza bera.
- Errepika ezazu prozesua behar duzun beste aldiz.

7. ERREPASOA

Errepasoak ikasitakoa ez ahazteko balio du. Izenak esaten duen moduan *birpasatzea* berriro pasatzea da.

Gainbegiratze fasean, komeni da testua askotan irakurtzea,.

Aipatu ditugun urrats bakoitzaren amaieran, konprobatu behar dira horretan egin diren gauza guztiak.

Prozesuaren amaieran behin eta berriro errepassatu behar da, baina honetan eskemak baino ez ditugu errepassatuko.

Errepaso kopurua oso inportantea da: zenbat eta gehiago errepassatu, hainbat eta materia gutxiago ahaztu.

NOIZ ERREPASATU?

- ☞ Lehenengo errepassoa, gaia ikasten amaitutakoan. Batekin nahiko ez bada, bi edo hiru errepasso egin.
- ☞ Hurrengo egunean, birpasatu aurreko egunean ikasitako materia.
- ☞ Hurrengo astean, beste errepasso bat egin.
- ☞ Azterketaren dataren arabera, segi errepassatzen materia ez ahazteko.
- ☞ Ez errepassatu inoiz azterketaren aurreko orduetan, ezta, posible bada, aurreko egunean ere. Urduriak ez dira lagun onak gauzak gogoratzeko.
- ☞ Hobe da errepassoak egitea egun desberdinetan. Ez da komeni errepasso asko egitea egun berean. Gehiago lagunduko dizute 5 errepassok 3 egunetan zehar, egun bereko 10 errepassok baino.

